

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (ETHI) 2003ko APIRILA

Bidaiarien sarrerak %12 eta gaualdiak %17 gehitu dira 2003ko apirilean

Aldakuntza horiek baloratzekoan, urte arteko konparazioan, kontuan hartu behar da 2003ko Aste Santua apirilean izan dela.

2003ko apirilean, 131.506 bidaiari-sarrera erregistratu dira Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hil berean baino ia 4.000 bisitari gehiago, hau da, %12ko gehikuntza, EUSTATEk eskainitako datuen arabera. Bidaiari-sarrek bilakaera desberdina izan dute hiru herrialdeetan. Urte arteko hazkunderik handiena Gipuzkoan izan da %20ko hazkundearekin, ondoren Bizkaian %9koarekin eta azkenik, Araban %2ko jaitsiera izan da.

Estatuko bidaiarien sarrerak %15 gehitu dira Euskal AE osoan eta atzerriko bidaiarien kopurua ere gehitu da, baina arinago, %4, hain zuzen ere. Estatuko bidaiariak herrialde guztietan gehitu dira, baina ez modu berean: %25 gehitu dira Gipuzkoan, %12 Bizkaian eta %1 Araban. Atzerriko bisitarien kopurua igo egin da Gipuzkoan (%10) eta Bizkaian (%3), baina jaitsiera nabarmena izan du Araban (%-14).

2003ko apirilean, 246.434 gaualdi erregistratu dira, hau da, aurreko urteko hil berean baino ia 36.000 gehiago eta %17ko gehikuntza. Egindako gaualdien kopuruak urte arteko bilakaera positiboa izan du herrialde guztietan: Gipuzkoan %27, Bizkaian %11 eta Araban %5 igo dira.

Bidaiarien batez besteko egonaldia hobetu egin da Euskal AE osoan eta 2002ko apirilko 1,79 egunetik aurtengo apirilko 1,88 egunera luzatu da. Luzatze horrek hiru herrialdeei eragin die: Araban %7, Gipuzkoan %6 eta Bizkaian %2 luzatu baitira.

Betetze-mailaren egoera ere, bai plazakakoena eta bai gelakakoena, hobetu egin da Gipuzkoan eta Bizkaian, baina ez Araban, eta hemen eragin negatiborik handiena hiriburuan izan da.

Lehenengo lauhilekoko konparazio-datuak

Baina 2003ko lehenengo lauhilekoko datuak iazko aldi bereko emaitzekiko erlazioan aztertuta, konparazioa homogeneousagoa da Aste Santuko jaien egutegiaren eragina (iaz martxoan izan zen eta aurtan apirilean) desagertu egiten baita. Horrela, 2003ko lehenengo lau hilabeteetan, 426.385 bidaiari-sarrera erregistratu dira, iaz baino 5.000 gehiago, eta erregistratutako gaualdiak 768.751 izan dira, iazko aldi berean baino 1.500 gehiago. Bidaiarien sarrerak eta gaualdiak ere igo egin dira Bizkaian eta Gipuzkoan lehenengo lauhilekoan: %2 igo dira bidaiarien sarrerak Gipuzkoan eta %4 Bizkaian, eta gaualdiak %2 Gipuzkoan eta %3 Bizkaian. Araban, oster, bi aldagaiek izan dituzte jaitsierak urteko lehenengo lau hilabeteetan: bidaiarien sarrerak %-7 jaitsi dira eta gaualdiak %-9.

Nekazalturismoa: igoera garrantzitsuak bidaiarien sarreretan (%67) eta gaudietan (%97).

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 8.206 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2003ko apirilean, aurreko urteko hil berean baino %67 gehiago: %96 gehitu dira Gipuzkoan, %50 Araban, eta %39 Bizkaian. Euskal AE osoan erregistratutako igoeraren eragileak estatuko bisitariak (%74) dira, atzerrikoak egonkor mantendu baitira (%0,0). Estatuko bisitariak hiru herrialdeetan igo dira eta atzerrikoak, berriz, Gipuzkoan bakarrik, Araban eta Bizkaian jaitsi egin baitira.

Nekazalturismoaren sektorean 20.849 gaudi egin dituzte aurtengo apirilean, 2002koan baino %97 gehiago eta herrialde guztietan izan dira urte arteko hazkunde-tasa garrantzitsuak: Gipuzkoan %157, Araban %61 eta Bizkaian %55.

Bidaiariko batez besteko egonaldia ere ehuneko 18 puntu luzatu da Euskal AE guztian. Gipuzkoan %31 luzatu da, Bizkaian %11 eta Araban %8.

Ildo berean, plazen betetze-maila ere nabarmen igo da, hein handi batean Aste Santuan apirilean izan delako aurtun.

Lehenengo lauhilekoko konparazio-datuak

Euskal AEko nekazalturismoko establezimenduetan, 22.125 bidaiari-sarrera zenbatu dira 2003ko lehenengo lauhilekoan, aurreko urteko aldi berean baino %10 gehiago. Bidaiari-kopurua igo egin da Gipuzkoan (%17) eta Bizkaian (%6), baina Araban, %2 jaitsi da, atzerriko bisitariak herrialde honetan izan duten jaitsiera handiak (%-41) eraginda.

Lehenengo lau hilabeteetan, 47.656 gaudi egin dituzte, 2002koetan baino %7 gehiago. Gipuzkoan bakarrik igo dira gaudiak (%24) eta jaitsi egin dira Araban (%-16) eta Bizkaian (%-1), herrialde bi horietan atzerriko bisitariak gaudi gutxiago egin izanaren ondorioz.

Bidaiariko batez besteko egonaldia %3 laburtu da Euskal AE guztian eta kasu honetan ere, herrialde bakoitzak eragin desberdina izan du: %6 luzatu da Gipuzkoan (%24), baina laburtu egin da Araban (%-14) eta Bizkaian (%-7).

Betetze-maila ere ehuneko 11 puntu igo da Gipuzkoako nekazalturismo-sektorean, baina jaitsi egin da Araban (%-23) eta Bizkaian (%-7).

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tlf:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tlf:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa oharrak Interneten: www.eustat.es

1. taula: hileko emaitzak

EUSKAL AE						ARABA						BIZKAIA						GIPUZKOA					
04/2003	%	04/2002	%	Δ%		04/2003	%	04/2002	%	Δ%		04/2003	%	04/2002	%	Δ%		04/2003	%	04/2002	%	Δ%	

HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK

BIDAIARI-SARRERAK	131.106	100	117.529	100	12	21.487	100	21.955	100	-2	50.801	100	46.683	100	9	58.818	100	48.891	100	20
Estatukoak	94.606	72	82.358	70	15	17.169	80	16.956	77	1	35.731	70	32.020	69	12	41.706	71	33.382	68	25
Atzerrikoak	36.500	28	35.171	30	4	4.318	20	4.999	23	-14	15.070	30	14.663	31	3	17.112	29	15.509	32	10
GAUALDIAK	246.434	100	210.907	100	17	38.244	100	36.379	100	5	96.716	100	86.853	100	11	111.474	100	87.675	100	27
Estatukoak	179.270	73	146.448	69	22	31.309	82	27.762	76	13	64.350	67	57.348	66	12	83.611	75	61.338	70	36
Atzerrikoak	67.164	27	64.459	31	4	6.935	18	8.617	24	-20	32.366	33	29.505	34	10	27.863	25	26.337	30	6
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,88		1,79		5	1,78		1,66		7	1,90		1,86		2	1,90		1,79		6
PLAZAKO BETETZE MAILA	43,96		40,71		8	39,43		44,63		-12	42,76		41,41		3	46,94		38,67		21

NEKAZALTURISMOA

BIDAIARI-SARRERAK	8.206	100	4.920	100	67	1.475	100	985	100	50	2.430	100	1.744	100	39	4.301	100	2.191	100	96
Estatukoak	7.707	94	4.423	90	74	1.453	99	942	96	54	2.220	91	1.491	85	49	4.034	94	1.990	91	103
Atzerrikoak	499	6	497	10	0	22	1	43	4	-49	210	9	253	15	-17	267	6	201	9	33
GAUALDIAK	20.849	100	10.560	100	97	3.195	100	1.983	100	61	6.615	100	4.281	100	55	11.039	100	4.296	100	157
Estatukoak	19.311	93	9.158	87	111	3.173	99	1.803	91	76	5.927	90	3.493	82	70	10.211	92	3.862	90	164
Atzerrikoak	1.538	7	1.402	13	10	22	1	180	9	-88	688	10	788	18	-13	828	8	434	10	91
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	2,54		2,15		18	2,17		2,01		8	2,72		2,45		11	2,57		1,96		31
PLAZAKO BETETZE MAILA	30,47		16,89		80	24,88		16,99		46	30,71		21,24		45	32,42		14,00		132

Iturria: EUSTAT

2. taula: Lauhileko emaitzak

	EUSKAL AE			ARABA			BIZKAIA			GIPUZKOA					
	2003	%	2002	%	Δ%	2003	%	2002	%	Δ%	2003	%	2002	%	Δ%
HOTEL-ESTABLEZIMENDUAK															
BIDAIAIARI-SARRERAK	426.385	100	421.026	100	1	75.928	100	81.291	100	-7	175.988	100	168.607	100	4
Estatukoak	324.795	76	315.882	75	3	62.254	82	66.262	82	-6	132.858	75	121.979	72	9
Atzerrikoak	101.590	24	105.144	25	-3	13.674	18	15.029	18	-9	43.130	25	46.628	28	-8
GAUALDIAK	768.751	100	767.275	100	0	126.052	100	138.938	100	-9	331.414	100	322.999	100	3
Estatukoak	572.401	74	559.961	73	2	103.755	82	112.678	81	-8	233.521	70	220.075	68	6
Atzerrikoak	196.350	26	207.314	27	-5	22.297	18	26.260	19	-15	97.893	30	102.924	32	-5
BATEZ BESTEKO EGONALDIA	1,80		1,82		-1	1,66		1,71		-3	1,88		1,92		-2
BETETZE-MAILA	36,62		39,15		-6	33,42		43,32		-23	38,33		39,92		-4
NEKAZAL TURISMOA															
BIDAIAIARI-SARRERAK	22.125	100	20.125	100	10	3.687	100	3.753	100	-2	7.462	100	7.027	100	6
Estatukoak	20.867	94	18.881	94	11	3.603	98	3.611	96	0	7.041	94	6.531	93	8
Atzerrikoak	1.258	6	1.244	6	1	84	2	142	4	-41	421	6	496	7	-15
GAUALDIAK	47.656	100	44.564	100	7	6.945	100	8.257	100	-16	16.597	100	16.849	100	-1
Estatukoak	43.912	92	40.727	91	8	6.790	98	7.685	93	-12	15.291	92	15.079	89	1
Atzerrikoak	3.744	8	3.837	9	-2	155	2	572	7	-73	1.306	8	1.770	11	-26
ESTANCIA MEDIA	2,15		2,21		-3	1,88		2,20		-14	2,22		2,40		-7
BETETZE-MAILA	18,29		18,64		-2	14,24		18,46		-23	20,10		21,57		-7

Iturria: EUSTAT